


LH5-6. MAILAKO GAZTETXOENTZAT FUTBITO TXAPELKETA

2024



NONDIK GATOZ?

2022. urtean Oinherri herri hezitzaileen sareko Oiartzungo taldeak herriko haurren batzorde bat sortu zuen Xanistebanetako haurren egitaraua osatzeko asmoz. Lehen urtean proposamenak biltzeko kutxak jarri ziren ikastetxeetan eta bertan jasotako ekintzak egitarauan txertatzen joan ziren herriko eragileen laguntzarekin.

Aurten hirugarren urtez lanketa bera egin da eta buzoietan jasotako proposamen bat gauzatzeko asmoz dabil lanean Oinherri. LH5 eta LH6ko proposamenak bildu dituen buzoian haurrentzako futbito edo futbol txapelketa bat antolatzeko eskaera jaso zen. Ez da eskaera hau dagoen lehen urtea eta beraz, aurten saiakera egitea erabaki da.

Horretarako, gazteen eta helduen txapelketa antolatzen dutenekin jarri da Oinherri harremanetan eta laguntzeko prest agertu dira Aitor Txiki txapelketa antolatzen dutenak.

PARTE HARTZEKO BALDINTZAK ETA INFORMAZIOA

BALDINTZAK

- Parte hartu nahi duten gaztetxoak LH5 eta LH6. mailatan egon behar dute.
- Gutxienez zazpi kideko taldeak osatu beharko dira eta taldeari izena jarri beharko zaio.
- Talde bakoitzeko hiru helduk (+16) eman beharko dute izena eta haiekin harremanetan jartzeko telefonoa edo emaila eskaini beharko dute.
- Heldu horiek txapelketaren antolaketan parte hartzeko konpromezua hartu behar dute.

EPEAK

- **Izen ematea:** Ikastetxeetan maiatzaren 31 baino lehen.
- **Antolaketa:** Helduekin harremanetan jarriko da Oinherri eta ekainean bilera egingo da antolaketarako.
- **Txapelketa** uztailean izango da eta talde kopuruaren baitako iraupena izango du. Finala Xanistebanetan jokatu da.